

Maider López
Ataskoa
Intza, 2005eko irailaren 18^a

ATASKOA vs. Ataskoa

Ezer baino lehen: ataskoa ez da auto ilara. Eta jarraitu aurretik bota beharreko beste ohar bat: ondoren irakurriko duzuna ez da arte kritika bat, Aralarreko Mailoen azpian ATASKATURIK egon zen norbaiten kontakizuna baizik.

Intza bezalako herri batera daraman errepidean atasko bat gertatzea ezinezkoa da ia. Horregatik deliberatu zuen ziurrenik Maider Lopezek ATASKOA bertan sortzea. *Sonrisas y Lágrimas* (The sound of music) filmeko paisaia baten erdian ATASKOA sortzea, berez, absurdua da. Eta hain justu horregatik iruditzen zait interesgarria ekintza hau. Esan dut goian artistikoki zer emaitza edo eraginkortasuna duen baloratzea ez dagokidala niri. Hala ere, badakit bizitzan benetan merezi duten gauzak gehienetan absurduak eta logikarik gabekoak direla. Maitasuna, desioa, sexua, inbidia, boterea, drogak, arrakasta... beren baitan absurduak dira, ez dute logikarik, baina gure bizitzaren ardatz bihurtzen dira. Eta ATASKOA, ekintza absurdu gisa, liluragarria da. Ez duelako zentzu logikorik. Artista baten burutapena da. Eta hain justu horregatik izan da posible eta gauzatu da ekintza hau. Artisten "hausnarketa onanistek", askotan, lekuz kanpo uzten gaituzte eta hori da hain zuzen atsegin ez duguna: gure burua ezjakin gisa ikustea. Eta hor dago erronka. ATASKOA bezalako jarduerak pentsarazten digute, nahi edo nahi ez. Gure burua zuritzeko besterik ez bada ere. Horren harira, gizartearen gehiengoari arte garaikidea arrotza egiten zaigun heinean iruditzen zaizkit interesgarriak Maider Lopezek bere obran mantendu ditun hainbat konstante: bere obrak kalean eta espazio publikoetan txertatzen ditu, eta bertan kamuflaturik, gure egunerokotasunaren parte bihurtzen dira. Eta kasu honetan bezala, artistak ez du bere obraren inguruan azalpenik ematen. Mendian ATASKATZEN gaitu eta gu, gure kotxeko ipurdian azaltzen diren ardien modura, han geratzen gara, artalde baten modura artzainak dioenari baaaaai esaten. Zentzu horretan, egunero pairatzen ditugun ataskoak eta Intzako ATASKOA gauza bera dira. Azken finean, goizero, lanerako bidean topatzen dugun pilaketa hori ere ez delako bat-batean sortutako zerbait. Arrazoi batengatik edo bestearengatik, pertsona multzo batek zita egiten du egunero errepidean bertan ataskatuta geratzeko. ATASKOARI esker, ataskoen inguruan hausnartu ahal izan dugu eta ekintza fisiko bera zer modu ezberdinetan bizi daitekeen ikasi dugu. Ataskoa kaosa, urduritasuna eta ostia txarraren sinonimoa izan daiteke batetik, eta bestetik, ATASKOA paraje eder bat ezagutu eta jendearekin komunikatzeko aukera ere izan daitekeela jabetu gara.

Hau guztia esan ostean, Maider Lopezek ekintza honetan gertatu zen kontraesan nabarmen bat ere aipatu nahi nuke. Atasko bat izan arren, ATASKOAREN antolakuntza suitzarra izan zela. Ez zen auto gidarien artean liskarrik izan, bapo bazkaldu eta edan genuen, iragarrita zegoena baino lehenago amaitu zen eta gainera, larreetan barneratu ginenok golkoa txanpinoiez beteta itzuli ginen etxera. Niri behintzat, une batez, Maider Lopezek Intzako belardi berdeetan behera ikusi nuenean Julie Andrews-en aurpegia zuela eta kantari zebilela iruditu zitzaidan...

*I go to the hills when my heart is lonely
I know I will hear what I've heard before
My heart will be blessed with the sound of music...*

Koldo Almandoz